# SomosLasFP

*Futuras Profesionales*
*Etorkizuneko profesionalak gaitun*

LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL

somoslasfp.eus

## LANBIDE HEZIKETAKO NESKA GAZTEAK ENTZUTEN.
## ESCUCHANDO A LAS ALUMNAS DE FORMACIÓN PROFESIONAL.




MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
Virgen del Camino
Meka Lanbide Eskola
ikasLAN Gipuzkoa
GIPUZKOAKO LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA
FORMACIÓN PROFESIONAL PÚBLICA DE GIPUZKOA
ncuentra SilviaMurielGómez
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

Financiado por el Ministerio de Educación y Formación Profesional – U.E. – Next Generation
Unión Europea

SomosLasFP

***Somos Las FP, Futuras Profesionales / Etorkizuneko Profesionalak* proiektuaren baitan prestatutako materiala.**

“Ministerio de Educación y Formación Profesional – UE. Next Generation”  finantzatuta.

Erregistroa: SMSLSFP-2023-1 martxoa

Proiektu hau Bergarako **LHII Miguel Altuna LHI ikastetxeak** zuzendu du,  eta partaideak izan dira: Iruñako **Iruñako CIP Virgen del Camino, Gipuzkoako CIFP Meka LHII, Ikaslan Gipuzkoa eta Ncuentra**.

Inkestaren emaitzak Ikertaldek prozesatu ditu.

**Material elaborado dentro del proyecto *Somos Las FP, Futuras Profesionales.***

Financiado por el Ministerio de Educación y Formación Profesional – U.E. – Next Generation

Registro: SMSLSFP-Marzo 2023-1

Trabajo liderado por el centro **CIFP Miguel Altuna LHII de Bergara,** y con la participación de **CIP Virgen del Camino de Navarra**, **CIFP Meka LHII de Gipuzkoa, Ikaslan Gipuzkoa y Ncuentra**.

Los resultados de la encuesta han sido procesados por Ikertalde.


POWER ON
POWER OFF
EMERGENCY STOP
HANDLE JOG
CYCLE START
FEED HOLD

# Aurkibidea


1. **Sarrera** ..... **6**
2. **Metodologia eta partaidetza** ..... **8**
3. **Galdetegitik ateratako ikaskuntza nagusiak**
   ***"Etorkizuneko profesionalak gaitun"*** ..... **14**
   - 3.1 Galdetegiari erantzun dioten emakumezko ikasleen parte-hartzea eta profila ..... 15
   - 3.2 Genero-estereotipoen pertzepzio propioak ..... 16
   - 3.3 Gizarteko pertzepzioak ..... 26
   - 3.4 Hezkuntzaren eta orientazioaren influentzia ..... 28
   - 3.5 Emakumezko ikasle parte-hartzaileen azken ekarpenak ..... 37
4. **Neskatilak, neska gazteak eta emakumeak.**
   **Prestakuntza Curriculuma hautatzeko prozesuan joka dezaketen papera.** ..... **40**
5. **Lanbide Heziketako ikastetxeak STEAM adarrekin.**
   **Izan dezaketen eragina eta joka dezaketen papera** ..... **44**
6. **Orientatzaileak eta irakasle-taldeak.**
   **Haien eragina eta joka dezaketen papera** ..... **52**
7. **Familiak. Haien eragina eta joka dezaketen papera.** ..... **58**
8. **Enpresak. Haien eragina eta joka dezaketen papera.** ..... **64**
9. **Eta orain, zer?** ..... **68**

# Índice

**1. Introducción** ..... **6**

**2. Metodología y participación** ..... **8**

**3. Principales aprendizajes surgidos de la encuesta *“Somos las FP. Futuras Profesionales”*** ..... **14**

3.1 Participación y perfil de las alumnas encuestadas ..... 15

3.2 Percepciones propias de los estereotipos de género ..... 16

3.3 Percepciones de la sociedad ..... 26

3.4 Influencia de la educación y la orientación ..... 28

3.5 Aportaciones finales de las alumnas participantes ..... 37

**4. Las niñas, jóvenes y mujeres. El papel que pueden jugar ellas mismas en su proceso de elección formativa** ..... **40**

**5. Los centros de Formación Profesional con ramas STEAM. Su influencia y el papel que pueden jugar** ..... **44**

**6. Las figuras de orientación y equipos docentes. Su influencia y el papel que pueden jugar** ..... **52**

**7. Las familias. Su influencia y el papel que pueden jugar** ..... **58**

**8. Las empresas de sectores STEAM. Su influencia y el papel que pueden jugar** ..... **64**

**9. Y ahora ¿qué?...** ..... **68**

# 1 / SARRERA INTRODUCCIÓN

**“Somos las FP. Futuras Profesionales. Etorkizuneko profesionalak gaitun”** analisi-azterlan bat da, eta helburu du ikasle emakumeek LHko adar teknikoetan edo STEAM izenekoetan sartzean atzematen dituzten hesiak identifikatzea. Horrez gain, genero-estereotipoak hauteman eta ikasketak hautatzen direnean erabakietan ez eragiteko proposamen berri eta berritzaileak planteatzen ditu.

**“Somos las FP. Futuras Profesionales. Etorkizuneko profesionalak gaitun”** proiektua Hezkuntza eta Lanbide Heziketako ikastetxe eta EBk (Next Generation) finantzatzen dute, eta Bergarako (Gipuzkoa) Miguel Altuna LHII da buru. Proiektuan lankidetzan dihardute Iruñeko (Nafarroa) Virgen del Camino LHIk, Elgoibarko (Gipuzkoa) MEKA LHIIk , Ikaslan Gipuzkoak (Gipuzkoako Lanbide Heziketako zentro publikoen elkartea) eta Ncuentrak (Emakundek homologatu duen aholkularitza-konpainia). Halaber, Elgoibarko Meka LHIIko Genero Berdintasuna Sustatzeko zikloan aritzen diren emakume ikasleen partaidetza berezia du.

Zenbait azterlanen arabera, frogatuta dago genero-estereotipoek bultzatuta, 6 urtetik 13 urtera neskek etorkizunari begirako nahiak aldatzen dituztela. Horregatik, haurtzaroko eta heziketako hesi horiek hausteko, proiektu honen helburua da prestakuntza-zikloak hautatzeko prozesuan eragiten duten faktoreei buruzko informazioa eskuratzea. Bildutako informazioekin “estatistikak hausteko estatistikak” lortu nahi dira.

Galdeketen emaitzak bildu eta aztertu ostean, neurri desberdinak planteatzen dira gida modura emakume ikasleentzat, senitartekoentzat, enpresentzat, LHko ikastetxeentzat, eta abarrentzat. www.somoslasfp.eus webgunean argitaratuko dira, eta xedea da emakumeen artean STEAM bokazioak sustatzea eta emakume kopuru handienak STEAM prestakuntza zikloak hautatzea.

STEAM edo EZ STEAM Zikloak sailkatzeko, erreferentziatzat hartu da, “Unidad de Igualdad del Ministerio de Educación y Formación Profesional”-eko

“Radiografía de la brecha de género en formación STEAM” liburuan,  eta innobasque.eus webguneko *Steam Sarean* argitaratutakoa.

**“Somos las FP. Futuras Profesionales. Etorkizuneko profesionalak gaitun”**, es un estudio que busca identificar las barreras sentidas por las alumnas en su acceso a las ramas técnicas o STEAM de la Formación Profesional y plantear nuevas e innovadoras propuestas para que los estereotipos de género sean detectados y no influyan en las decisiones que vayan a tomar en la elección de los estudios.

**“Somos las FP. Futuras Profesionales. Etorkizuneko profesionalak gaitun”** es un proyecto financiado por el Ministerio de Educación y Formación Profesional – UE. Next Generation, liderado por el CIFP Miguel Altuna de Bergara (Gipuzkoa) junto a la participación del CIP Virgen del Camino de Pamplona (Navarra), CIFP MEKA LHII de Elgoibar (Gipuzkoa), Ikaslan Gipuzkoa (Asociación de centros de formación profesional públicos de Gipuzkoa) y Ncuentra (Consultora homologada por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, para la realización de consultoría en materia de igualdad de mujeres y hombres). Cuenta también con la participación especial de las alumnas del ciclo de Promoción de Igualdad de Género del CIFP Meka de Elgoibar.

Diversos estudios demuestran que influenciadas por los estereotipos de género, de los 6 a los 13 años, las niñas van cambiando de aspiraciones en lo que a su futuro se refiere. Por ello, con el fin de romper esas barreras que van teniendo durante toda la infancia y su educación formal e informal posterior, este proyecto tiene como objetivo obtener información sobre los factores que intervienen en su proceso de elección del ciclo formativo a realizar. Con las informaciones recogidas, se pretende ofrecer “estadísticas para romper las estadísticas”.

Una vez obtenidos y analizados los resultados de las encuestas, se plantean diferentes medidas, como guías de recomendaciones para alumnas, familias, centros de Formación Profesional y equipos docentes y de orientación, empresas que acogen alumnado de ramas STEAM, etc. Son publicadas también en la web www.somoslasfp.eus y tienen como objetivo fomentar las vocaciones y las elecciones de ciclos formativos STEAM por parte de un mayor número de mujeres.

Para la clasificación de los Ciclos STEAM ó NO STEAM, se ha tomado como referencia los datos publicados en la Radiografía de la brecha de género en formación STEAM de la Unidad de igualdad del Ministerio de Educación y Formación Profesional, y lo publicado en la página de innobasque.eus, dentro del apartado de *Steam Sarea.*




# 2

# METODOLOGIA ETA PARTAIDETZA

# METODOLOGÍA Y PARTICIPACIÓN

Planteatutako lana egiteko, azterlana metodologia mistoan oinarritu da, eta teknika kuantitatiboak nahiz kualitatiboak konbinatu ditu.

Metodologia kualitatiboari dagokionez, Meka LHIIan (Elgoibar) Genero Berdintasuna Sustatzeko zikloko emakume ikasleen partaidetza izan da, gerora metodologia kuantitatiboa osatuko duen inkestaren edukia egiaztatzeko. Beren ekarpen eta bizipen pertsonalak kontuan hartu ziren.

Metodologia kuantitatiboari dagokionez, Ikertalde Aholkularitza Taldearekin batera lan egin da. Galdetegi bat bidali zitzaien Gipuzkoako eta Nafarroako Lanbide Heziketa Publikoko ikastetxe guztiei. Proiektu-taldeak zuzendutako webinar baten bidez ikastetxeei emandako jarraibideekin, ikastetxe gehienek modu autonomoan pasatu zituzten inkestak, eta on line formatuko inkestetara sartu ziren, www.somoslas.org orriaren bidez. Parte hartu zuten ikastetxeen lankidetza erabakigarria izan zen proiektuaren fase honetan.

Galdeketa Gipuzkoako Ikaslan Sarean dauden ikastetxeetan eta Nafarroako ADIn zabaldu zen eta, azkenean, 40 ikastetxeetako 3.300 ikasleren erantzunak jaso dira 2022ko urriaren eta azaroaren bitartean. Galdetutako pertsonei dagokienez, guztiak LHko STEAM eta ez STEAM adarretako emakumeak izan dira.

A fin de llevar a cabo el trabajo planteado, el estudio se ha basado en una metodología mixta, combinando técnicas cuantitativas y cualitativas.

Sobre la metodología cualitativa, se ha contado con la participación de alumnas del ciclo de Promoción de Igualdad de Género del CIFP Meka (Elgoibar) de cara a contrastar el contenido de la encuesta que posteriormente constituye la metodología cuantitativa. Sus aportaciones y vivencias personales fueron tenidas en cuenta.

En relación con la metodología cuantitativa, se ha trabajado conjuntamente con el Grupo Consultor Ikertalde. Se remitió un cuestionario a todos los centros de Formación Profesional Públicos de Gipuzkoa y de Navarra, Con las instrucciones aportadas a los centros en un webinar dirigido por el equipo del proyecto, la mayoría de centros pasó las encuestas de manera autónoma accediendo a las encuestas en formato online por medio de la página www.somoslasfp.eus. La colaboración de los centros participantes resultó decisiva en esta fase del proyecto.

Dicho cuestionario, difundido entre los centros de la Red de Ikaslan Gipuzkoa y de ADI de Navarra, ha recibido finalmente respuestas de 3.300 alumnas de 40 centros, entre octubre y noviembre de 2022. En cuanto a las personas encuestadas, todas han sido mujeres pertenecientes tanto a las ramas STEAM como no STEAM de la FP.

## 40 IKASTEXEETAKO 3.300 IKASLEEI EGINIKO INKESTAK

2022ko urria-azaroa

## ENCUESTAS REALIZADAS A 3.300 ALUMNAS DE 40 CENTROS

Octubre-noviembre de 2022

- % 37,3 (1.243) STEAM prestakuntza-zikloa egiten ari da; gainerako % 62,7k ez-STEAMen dihardu.

- El 37,3% (1.243) está cursando un ciclo formativo STEAM, el resto, el 62,7% no STEAM.

LH / FP **STEAM**

**37,3%**

[1.243]

**EZ / NO STEAM**

**62,7%**

[2.089]

---

- **Erdi-Mailako graduak, Goi-Mailakoak eta Espezializazio kurtsoak:** Ikasleen % 57,9 goi-mailako prestakuntza-zikloa egiten ari da; emakume ikasleen % 41,8, berriz, maila ertaineko zikloa. Gainerakoek (% 0,3) espezializazio-zikloan dihardute.

- **Grado Medio, Superior y Cursos de Especialización:** El 57,9% de las alumnas están cursando un ciclo formativo de grado superior, un 41,8% a alumnas de un ciclo de grado medio (el resto, el 0,3% un curso de especialización).

**57,9%**

Goi mailako Zikloetakoak
Ciclo Grado Superior

**41,8%**

Erdi mailako Zikloetakoak
Ciclo Grado Medio

**0,3%**

Espezializazio kurtsoak
Curso de Especialización

- Lanbide Heziketako maila STEAM-EZ STEAM ikasketen arabera.

- Nivel de formación profesional según estudios STEAM-NO STEAM.




---

- **Lurralde historikoaren arabera:** % 58,9 (1.962 inkesta) Gipuzkoako 25 ikastetxeetan egin dira eta 1.368 (% 41,1) Nafarroako 15 ikastetxeri dagozkio.

- **Por Territorio Histórico: un 58,9% (1.962** encuestas) se han realizado en 25 centros de Gipuzkoa y 1.368 (41,1%) corresponden a 15 centros de Navarra.

**58,9%** → **25**

1.962
Inkesta
Encuestas

Gipuzkoako ikastetxeak
Centros de Gipuzkoa



**41,1%** → **15**

1.368
Inkesta
Encuestas

Nafarroako ikastetxeak
Centros de Navarra




Kondia
B640

Honako zentru hauek hartu dute parte:
Los centros participantes en el estudio han sido los siguientes:

## GIPUZKOA



- CIFP Aretxabaleta Lanbide Eskola LHII
- CIFP Armeria Eskola LHII
- CIFP Avd (Birt LH) LHII
- CIFP Bidasoa LHII
- CIFP Blas de Lezo LHII
- CIFP Don Bosco LHII
- CIFP Eagi LHII
- CIFP Easo Politeknikoa Lhii
- CIFP Fraisoro Eskola LHII
- CIFP Gizarte Berrikuntzako LHII
- CIFP Imh LHII
- CIFP Izarraitz Lanbide Heziketa LHII
- CIFP Kardala Lhii
- CIFP Meka LHII
- CIFP Miguel Altuna LHII
- CIFP Monte Albertia LHII
- CIFP Tolosaldea LHII
- CIFP Uni Eibar LHII
- CIFP Usurbil LHII
- IES Leizaran Institutua BHI
- IES Mutriku BHI
- IES Oianguren BHI
- IES Oñati BHI
- IES Plaiaundi BHI
- IES Xabier Zubiri - Manteo BHI

## NAFARROA / NAVARRA



- CI Agroforestal
- CI Burlada FP
- CI Escuela de Educadoras y Educadores Hezitzaile Eskola II
- CI Escuela Sanitaria Técnico Profesional de Navarra-ESTNA
- CI María Ana Sanz
- CI Politécnico de Estella
- CI San Juan-Donibane
- CIP Donapea IIP
- CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP
- CIP FP Lumbier IIP
- CIP FP Sakana LH IIP
- CIP Tafalla
- CIP Virgen del Camino
- IES Ega
- IES Ribera del Arga

Jarraian, hezkuntza-ziklo jakin bat hautatzeko prozesuarekin lotutako hainbat arlotan, inkestak azaldu dituen joerak azaltzen dira.

Ondoren, prozesu horretan eragina duten pertsona- edo eragile-talde desberdinentzako gomendioak sartu dira: neskak berak, familiak, ikastetxeak eta STEAM adarrak dituzten LHko ikastetxeak, irakaskuntza- eta orientazio-taldeak, STEAM ikasleak hartzen dituzten enpresak, etab.

A continuación, se muestran las tendencias que la encuesta ha generado en diversas dimensiones relacionadas con el proceso de toma de decisión para la elección de un ciclo formativo concreto.

Posteriormente, se incluyen recomendaciones para diferentes segmentos de personas o agentes con influencia en dicho proceso: las propias mujeres, las familias, los centros educativos y centros de FP con ramas STEAM, equipos docentes y de orientación, empresas que acogen alumnado STEAM, etc.



# 3

# GALDETEGITIK ATERATAKO IKASKUNTZA NAGUSIAK
*"ETORKIZUNEKO PROFESIONALAK GAITUN"*

# PRINCIPALES APRENDIZAJES SURGIDOS DE LA ENCUESTA
*"SOMOS LAS FP. FUTURAS PROFESIONALES"*

# 3.1.

## GALDETEGIARI ERANTZUN DIOTEN EMAKUMEZKO IKASLEEN PARTE-HARTZEA ETA PROFILA
## PARTICIPACIÓN Y PERFIL DE LAS ALUMNAS ENCUESTADAS

**STEAM zikloetako emakumezko ikasleek, orokorrean, STEAM ez diren zikloetakoek baino adin handiagoa dute.**

Galdetegiari erantzun dioten emakumezko ikasleen hiru laurdenek (% 75,1) 22 urte baino gutxiago dituzte. STEAM zikloen kasuan, deigarria da emakumezko ikasleen % 20k 26 urte baino gehiago zituztela. Adin-segmentu horretan, STEAM ez diren zikloetan, % 11,6ra murrizten da ehunekoa.

**Las alumnas de los ciclos STEAM tienen, en general, más edad que aquellas que cursan ciclos no STEAM.**

Tres cuartas partes de las alumnas encuestadas tenía una edad inferior a 22 años (75,1%). En el caso de los ciclos STEAM, llama la atención que un 20% de las alumnas tenía una edad superior a 26 años, porcentaje que en este segmento de edad se reduce al 11,6% en los no STEAM.



# 3.2.

## GENERO-ESTEREOTIPOEN PERTZEPZIO PROPIOAK
## PERCEPCIONES PROPIAS DE LOS ESTEREOTIPOS DE GÉNERO

### 3.2.1. Heziketa-zikloaren aukeraketa
### Elección del ciclo formativo

**DBH (% 32,5) eta Batxilergoa (% 26,2) dira emakumezko ikasleek egungo prestakuntza egitea erabaki zuten bi hezkuntza-etapa nagusiak.**

Erabaki hori DBHn hartu zuten emakumezko ikasleen ehunekoa handiagoa da STEAM ez den ziklo bat egin zuten emakumezko ikasleen kasuan (% 35,5), STEAM ziklo bat egiten dutenen aldean (% 27,5). Gainera, ehuneko hori nabarmen handiagoa da Nafarroan. Lurralde horretan, % 40,5ekoa da eta Gipuzkoan, berriz, % 26,9koa.

Erabakia Batxilergoan hartu zuten emakumezko ikasleen proportzioan ia ez dago alderik ikasketa-tipologiaren arabera (% 27,8 STEAM zikloak eta % 25,2 STEAM ez diren zikloak), eta aldea pixka bat handiagoa da lurraldearen arabera (% 28,5 Gipuzkoan eta % 22,9 Nafarroan).

**La ESO (32,5%) y el Bachillerato (26,2%) son las dos principales etapas educativas en las que las alumnas tomaron su decisión de cursar la formación actual.**

El porcentaje de alumnas que tomó la decisión durante la ESO es superior en el caso de las alumnas que cursan un ciclo no STEAM (35,5%) respecto a las que cursan un ciclo STEAM (27,5%). Asimismo, este porcentaje es notablemente superior en Navarra, territorio en el que alcanza el 40,5%, frente al 26,9% de Gipuzkoa.

La proporción de alumnas que tomaron la decisión en Bachillerato apenas difiere según la tipología de estudios (27,8% STEAM y 25,2% no STEAM), siendo la diferencia un poco más amplia en función del territorio (28,5% Gipuzkoa y 22,9% Navarra).

EMAKUMEZKO IKASLEEK EGUNGO PRESTAKUNTZA EGITEA ERABAKI ZUTEN HEZKUNTZA-ETAPA NAGUSIAK.

ETAPAS EDUCATIVAS EN LAS QUE LAS ALUMNAS TOMARON SU DECISIÓN DE CURSAR LA FORMACIÓN ACTUAL.

## DBH
## ESO

**32,5%**

↓

### STEAM

**27,5%**

Erabakia DBHn hartu eta STEAM zikloa egiten ari diren emakumezko ikasleen ehunekoa.

Porcentaje de alumnas que tomó la decisión durante la ESO que cursan un ciclo STEAM.

### EZ / NO STEAM

**35,5%**

Erabakia DBHn hartu eta EZ STEAM zikloa egiten ari diren emakumezko ikasleen ehunekoa.

Porcentaje de alumnas que tomó la decisión durante la ESO que cursan un ciclo NO STEAM.

## BATXILERGOA
## BACHILLERATO

**26,2%**

↓

### STEAM

**27,8%**

Erabakia Batxilergoan hartu eta STEAM zikloa egiten ari diren emakumezko ikasleen ehunekoa.

Porcentaje de alumnas que tomó la decisión en Bachillerato que cursan un ciclo STEAM

### EZ / NO STEAM

**25,2%**

Erabakia Batxilergoan hartu eta EZ STEAM zikloa egiten ari diren emakumezko ikasleen ehunekoa.

Porcentaje de alumnas que tomó la decisión en Bachillerato que cursan un ciclo NO STEAM.

**26 urtetik gorako emakumezko ikasleen % 45,8k lanean zeudela hartu zuten erabakia.**

Etapa horietan nabarmentzekoa da erabakia lanean hasi zirenean hartu zuten emakumezko ikasleen ehunekoa handiagoa dela STEAM zikloak egiten dituzten emakumezko ikasleen kasuan (% 10,3; eta STEAM ez diren zikloak egiten dituztenen kasuan, % 7,2).

**El 45,8% de las alumnas mayores de 26 años tomó la decisión estando trabajando.**

En estas etapas, cabe destacar que el porcentaje de alumnas que tomó la decisión cuando empezó a trabajar es más elevado en el caso de las alumnas que cursan un ciclo STEAM (10,3% frente al 7,2% de los no STEAM).

## Erabakia hartzeko unea
## Momento de la toma de decisión



**Ama, lagunak eta ikaskideak dira ikasketak aukeratzeko garaian influentzia handiena duten figurak.**

Deigarria da hezkuntza formalak influentzia maila eskasa duela ikasketak aukeratzeko garaian. Zehazki, % 12,6 garrantzi handia edo nahikoa ematen diote bere ikastetxeko orientatzaileari; % 10,3k ikasketak egin zituzten ikastetxean egindako orientazio-jarduerei; eta % 13,8k irakasle jakin bati.

**Madre y amistades o compañeras y compañeros de estudios son las figuras con más influencia en la elección de los estudios.**

Llama la atención el escaso grado de influencia del mundo educativo formal en la elección de estudios. Concretamente, un 12,6% otorga mucha o bastante relevancia al orientador u orientadora de su centro, un 10,3% a las actividades de orientación realizadas en el centro donde cursó sus anteriores estudios y un 13,8% a un profesor o profesora concreta.

**Ikasketak aukeratzeko garaian influentzia handiena duten figurak**
**Figuras con más influencia en la elección de los estudios**



Orokorrean, emakumezko ikasleek uste dute familiako kideek eta lagunek bideratu dituztela STEAM ikasketetara, hezkuntza-arloko beste figura batzuek baino gehiago.

Con carácter general, las alumnas consideran que las influencias del ámbito familiar y amistades les han orientado hacia estudios STEAM en mayor medida que otras figuras del ámbito educativo.

**Influentzia STEAM ikasketak aukeratzeko orduan**
**Influencia en la elección de estudios STEAM**




ORBEA

## 3.2.2. Enplegu bat aukeratzeko irizpideak
## Criterios para la elección de un empleo

Batez besteko puntuazioetako aldea ez da oso nabarmena emakumezko ikasleek egiten dituzten ikasketen moten arabera, baina zenbait irizpide (tartean, **laneratzeko aukera, ibilbide profesional bat garatzea edo kontratu finko bat**) oso garrantzitsutzat jo dituzte (5eko puntuazioa) proportzio handiago batean STEAM ziklo bat egiten duten emakumezko ikasleek (% 43,4, % 45,8 eta % 61,1, hurrenez hurren), STEAM ez den gradu bat egiten dutenen aldean (% 35,7, % 39 eta % 54,7, hurrenez hurren). Aldiz, STEAM ez diren zikloetako emakumezko ikasleen proportzio handiago batek oso garrantzitsutzat jo ditu familia-negozioaren jarraitutasuna, telelana eta bestelako alderdiak.

Aunque la diferencia en las puntuaciones medias resulta poco relevante en función de la tipología de estudios realizados por las alumnas, criterios como la posibilidad de inserción laboral, el desarrollo de una carrera profesional o un contrato fijo se han considerado muy relevantes (5 de puntuación) en una proporción mayor por las alumnas que cursan un ciclo STEAM (43,4%, 45,8% y 61,1% respectivamente) respecto a las que cursan un grado no STEAM (35,7%, 39% y 54,7% respectivamente). Por el contrario, aspectos como la continuidad del negocio familiar o el teletrabajo los han considerado como muy importantes una mayor proporción de alumnas de ciclos no STEAM.

**Lan bat aukeratzeko irizpideak: 0 eta 5 arteko eskala**
**Criterios para la elección de un trabajo: escala 0 a 5**



## Lan bat aukeratzeko irizpideak: 0 eta 5 arteko eskala
## Criterios para la elección de un trabajo: escala 0 a 5







JBM
ACERO

### 3.2.3. Nola ikusten dut nire burua? ¿Cómo me veo?

**STEAM zikloetako emakumezko ikasleek neurri handiagoan uste dute elektronika, industria, eraikuntza, informatika, mekanika eta abarrekin lotutako lanbideetarako gaitasunak dituztela.**

Emakumezko ikasleen ia bi heren (% 64,8) ados edo erabat ados daude baieztapen honekin: «Zerbitzuak ematearekin, zainketekin eta abarrekin lotutako lanbideetarako gaitasunak ditut». Ehuneko hori ia 8 portzentaje-puntu handiagoa da STEAM ez diren ikasketetako emakumezko ikasleetan (% 67,8) STEAM ikasketetakoen aldean (% 59,9).

Hala ere, elektronika, industria, eraikuntza, informatika, mekanika eta abarrekin lotutako lanbideetarako gaitasunak dituztela uste duten emakumezko ikasleen proportzioa (oso edo erabat ados baieztapenarekin) % 28,3ra murrizten da, eta, kasu honetan, ehunekoa nabarmen handiagoa da STEAM ikasketetako emakumezko ikasleen artean (% 41,4), STEAM ez diren ikasketetakoen aldean (% 20,4).

**Las alumnas de ciclos STEAM consideran en mayor medida que tienen habilidades para profesiones relacionadas con la electrónica, la industria, la construcción, la informática, la mecánica, etc.**

Cerca de dos tercios de las alumnas (64,8%) están muy de acuerdo o totalmente de acuerdo con la afirmación “tengo habilidades para profesiones relacionadas con la prestación de servicios, los cuidados, etc.”, porcentaje que es casi ocho puntos porcentuales mayor en el caso de las alumnas no STEAM (67,8%) respecto a las STEAM (59,9%).

Sin embargo, la proporción de alumnas que cree tener habilidades para profesiones relacionadas con la electrónica, la industria, la construcción, la informática, la mecánica, etc. (muy o totalmente de acuerdo con la afirmación) se reduce al 28,3%, siendo en este caso el porcentaje notablemente mayor entre las alumnas STEAM (41,4%) respecto a las no STEAM (20,4%).

**64,8%**

Zerbitzuak ematearekin, zainketekin eta abarrekin lotutako lanbideetarako gaitasunak ditudala uste dut.

Considero que tengo habilidades para profesiones relacionadas con la prestación de servicios, los cuidados, etc.




**28,3%**

Elektronika, industria, eraikuntza, informatika, mekanika eta abarrekin lotutako lanbideetarako gaitasunak ditudala uste dut.

Considero que tengo habilidades para profesiones relacionadas con la electrónica, la industria, la informática, la mecánica, etc.

# 3.3.

## GIZARTEKO PERTZEPZIOAK
## PERCEPCIONES EN LA SOCIEDAD

### 3.3.1. Gizarteko estereotipoei buruz dudan pertzepzioa
### Mi percepción de los estereotipos de la sociedad

Nabarmena da lantokiari eta lanbideari lotutako gizartean dauden genero-estereotipoak beren gain hartzen dituzten emakume ikasleen ehunekoa.

Es relevante el porcentaje de alumnas que asume como propios estereotipos de género presentes en la sociedead  asociadas a los lugares de trabajo y la profesión que se ejerza.

| | | |
|---|---|---|
| Emakumeentzat zaila da gizonak gehiengoa diren lantokietara egokitzea. → | **36,9%** | ← Para las mujeres es difícil adaptarse a los lugares de trabajo donde los hombres son mayoría. |
| Gizonak gehiengoa diren lantokiak ez daude emakumeak lanera joateko prestatuta. → | **42,8%** | ← Los lugares de trabajo donde los hombres son mayoría no están preparados para que vayan a trabajar mujeres. |
| Familiei segurtasuna ematen die alabak lanbide feminizatuak ikasteak eta haiek horietan lan egiteak. → | **36,6%** | ← A las familias les da seguridad que su hija estudie y trabaje en profesiones feminizadas. |

### 3.3.2. Gertuko inguruko (familia, lagunak) estereotipoei buruz dudan pertzepzioa Mi percepción de los estereotipos en el entorno cercano/familia, amistades

Zenbait emakumezko ikaslek nolabaiteko adostasun maila erakusten dute **familiako genero-estereotipoei** buruzko baieztapenekiko:

Las alumnas muestran cierto grado de acuerdo con las afirmaciones relativas a **los estereotipos de género en las familias:**

| | | |
|---|---|---|
| Nire familiak ondo darama emakumeak lan-ingurune maskulinizatuetan ikustea. → | 83,0% | ← En mi familia se lleva bien ver a mujeres en ámbitos de trabajo masculinizados. |
| Nire familiako erreferentziako helduen portaerek ez dituzte genero-estereotipoak errepikatzen, are horiek alderantzikatu egiten dituzte. → | 48,7% | ← Las figuras adultas de referencia de mi familia tienen comportamientos que no reproducen estereotipos de género e incluso los invierten. |
| Nire familiako erreferentziako helduek genero-estereotipo oso klasikoak errepikatzen dituzte oso modu agerikoan. → | 35,3% | ← Las figuras adultas de referencia de mi familia reproducen estereotipos de género muy clásicos y de un modo evidente. |

# 3.4.

## HEZKUNTZAREN ETA ORIENTAZIOAREN INFLUENTZIA
## INFLUENCIA DE LA EDUCACIÓN Y LA ORIENTACIÓN

### 3.4.1. Lanbide Heziketaren aurreko hezkuntza-etaparen influentzia
### Influencia de la etapa educativa previa a la FP

**Lanbide Heziketaren aurreko etapetako STEAM arloetako ikasgai eta edukiekiko interesa eta gai horietako irakasleak faktore garrantzitsuak dira emakumezko ikasleen etorkizuneko erabakian.**

STEAM ikasgai eta edukiak zerbait, nahiko edo asko interesatzen zitzaizkien STEAM emakumezko ikasleen proportzioa STEAM ez diren arloetako emakumezko ikasleena baino nabarmen handiagoa da. Aldeak agerikoak dira, halaber, irakasleekiko pertzepzioa ikasgai horiek erakargarriak egiteko orduan, bai eta gaiak errazagoak eta dibertigarriagoak egiteko dibulgazio-jardueren balorazioan ere.

Nolanahi ere, emakumezko ikasle gehienek (STEAM arloetakoak eta STEAM ez diren arloetakoak) uste badute ere beren ikastetxeek gai horietarako instalazio espezifikoak zituztela (laborategia, teknologia-gela, eta abar), ez dirudi hori faktore bereizgarri bat denik.

**El interés por las materias y contenidos de las áreas STEAM así como el profesorado de estas temáticas durante las etapas previas a la FP son factores relevantes en la futura decisión de las alumnas.**

La proporción de alumnas STEAM que se sentían algo, bastante o muy atraídas e interesadas por las materias y contenidos STEAM es notablemente superior al de las alumnas no STEAM. Las diferencias también son evidentes en la percepción respecto al profesorado a la hora de hacer estas materias atractivas, así como en la valoración de las actividades de divulgación para hacer las temáticas más sencillas y divertidas.

Sin embargo, aunque la mayor parte de alumnas, tanto STEAM como no STEAM considera que sus centros disponían de instalaciones específicas para este tipo de materias (laboratorio, clase de tecnología, …), este no parece ser un factor diferencial.

**Zerbait, nahiko edo oso ados baieztapenekin**
**Algo, bastante o muy de acuerdo con las afirmaciones**

| | STEAM | EZ / NO STEAM |
|---|---|---|
| Gai horiek erakartzen ninduten eta gustatzen zitzaizkidan orokorrean<br>Me atraían y me gustaban estas temáticas en general | 73,6 | 46,2 |
| Gai horietako irakasleek erakargarriak egiten dituzten gaiak<br>El profesorado de estas temáticas me las hacía atractivas | 55,3 | 38,8 |
| Nire ikastetxean eskola horiek emateko instalazio espezifikoak zeuden (laborategia, teknologia-gela, eta abar)<br>En mi centro había instalaciones específicas para dar estas clases (laboratorio, clase de tecnología, …) | 74,0 | 74,7 |
| Dibulgazio-jarduerak egiten ziren gaiak errazak, dibertigarriak eta atseginak zirela pentsa genezan<br>Se hacían actividades de divulgación para que nos parecieran t emáticas sencillas, divertidas, agradables… | 49,4 | 49,4 |
| Gai hauetako edukiak interesatzen zitzaizkidan<br>Sentía interés hacia los contenidos de estas materias | 72,5 | 46,6 |

**STEAM ziklo bat egiten duten emakumezko ikasleek kalifikazio hobeak lortu zituzten STEAM arloekin lotutako gai edo ikasgaietan lehen eta bigarren hezkuntzan.**

**Las alumnas que cursan un ciclo STEAM obtuvieron mejores calificaciones en materias o asignaturas relacionadas con las áreas STEAM durante la Educación Primaria y Secundaria.**

**Aurreko etapetan nota onak edo oso onak izan zituzten emakumezko ikasleen ehunekoa.**

**% de alumnas con buenas o muy buenas notas en las etapas previas.**

| | GUZTIRA TOTAL | STEAM | EZ / NO STEAM |
|---|---|---|---|
| Giza eta gizarte-zientziak (filosofia, filologia, hizkuntzak, historia, ekonomia...) Ciencias sociales y humanidades (filosofía, filología, idiomas, historia, economía…) | 62,7 | 62,3 | 63,1 |
| Zientziak (fisika, kimika, geologia, biologia, matematikak...) Ciencias (física, química, geología y biología, matemáticas…) | 49,7 | 61 | 38,8 |
| Teknologia arloa (teknologia, informatika...) Ámbito tecnológico (Tecnología, Informática...) | 65,7 | 69,1 | 63,6 |
| Arteak eta diseinua (marrazketa teknikoa, plastika...) Artes y diseño (Dibujo técnico, Plástica…) | 67,2 | 68,2 | 66,7 |



## 3.4.2. Orientazio-prozesuak Lanbide Heziketa aurreko hezkuntza-etapan duen intzidentzia

## Incidencia del proceso de orientación en la etapa educativa previa a la FP

**Lanbide Heziketako edo unibertsitateko azokak eta/edo industria-sektoreko Lanbide Heziketako ikastetxeak bisitatzea edo neskak sentsibilizatzeko eta STEAM ikasketa eta lanetara hurbiltzeko kanpainak edo jarduerak izan dira STEAM gradu bat aukeratu duten emakumezko ikasleengan influentzia handiena izan duten jarduerak** (% 38,8), eta emakumezko ikasle horien % 36,1ek uste dute jarduera horiek influentzia nahikoa edo handia izan dutela beren aukeraketan eta, hala ere, gutxien egiten diren jarduerak dira, postu eta sektore maskulinizatuetan lan egiten duten emakumeen hitzaldiekin batera.

Aldiz, Orientazio Zerbitzuko jarduerak edo Lanbide Heziketako ikasketa industrialei buruzko ikastetxeko tutoretzak (galdetegiak, hitzaldiak, eta abar) dira gehien egin diren jarduerak eta influentzia txikiena dutenak.

**Las visitas a Ferias de FP- universitarias y/o a centros de FP del sector industrial o las campañas o actividades para sensibilizar a las chicas y acercarles a estudios y trabajos STEAM, son las actividades que han tenido mayor influencia en las alumnas que se han decantado por un grado STEAM,** con un 38,8% y un 36,1% de estas alumnas que consideran que estas actividades han tenido bastante o mucha influencia en su elección y, sin embargo, son las actividades menos realizadas junto con las charlas de mujeres que trabajan en puestos o sectores masculinizados.

Por el contrario, las actividades del Servicio de Orientación y/o tutorías del centro (cuestionarios, charlas…) sobre estudios de FP industriales, son las actividades más realizadas y las que cuentan con una menor influencia.

**Ikastetxetik kanpo egindako jardueren influentzia handiagoa.**

Ikastetxetik kanpo egindako jarduerek inpaktu handiagoa dute STEAM arloetako emakumezko ikasleengan, hein handi batean haiek erabakita egiten dituztelako. Beraz, aurretik jada bazuten jarrera edo interesa.

Jarduera horien barruan, gradu industrialak ikastera bideratutako etorkizun bati buruzko familiako elkarrizketak dira jarduerarik nabarmenenak, bai maiztasunagatik (% 62,1), bai influentzia mailagatik. STEAM arloetako emakumezko ikasleen % 66,1ek uste dute jarduera horrek influentzia nahikoa edo handia izan duela haien erabakian.

**Mayor influencia de las actividades realizadas fuera del centro.**

Las actividades realizadas fuera del centro tienen un mayor impacto en las alumnas STEAM, ya que en gran medida se realizan por iniciativa propia. Por tanto, contaban con una predisposición o interés previo.

Dentro de estas actividades, las conversaciones con la familia sobre un futuro encaminado a estudiar grados industriales, se muestra como la actividad más relevante, tanto por su frecuencia (62,1%) como por su grado de influencia, con un 66,1% de alumnas STEAM que considera que esta actividad ha tenido bastante o mucha influencia en su decisión.



**Emakumezko ikasleen % 72,2ri gustatuko litzaieke STEAM heziketa-zikloak ematen diren Lanbide Heziketako ikastetxeei buruzko informazio gehiago jasotzea.**

Ehuneko hori % 82,1era iristen da azkenean STEAM ikasketak aukeratu zituzten emakumezko ikasleen kasuan.

**Al 72,2% de las alumnas le hubiera gustado recibir más información sobre los centros de FP donde se imparten Ciclos Formativos STEAM.**

Este porcentaje alcanza el 82,1% en el caso de las alumnas que finalmente eligieron estudios STEAM.




**Emakumezko ikasleentzat STEAM heziketa-zikloak ematen diren Lanbide Heziketako ikastetxeetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta zaintzea zeinen garrantzitsua den.**

Emakumezko ikasleen % 82,1i gustatuko litzaieke STEAM heziketa-zikoak ematen diren Lanbide Heziketako ikastetxeetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeari eta zaintzeari buruzko informazio gehiago jasotzea. Kasu honetan, ehunekoa 5,7 portzentaje-puntu handiagoa bada ere STEAM arloetako emakumezko ikasleetan, STEAM ez diren arloetako 10 emakumezko ikasletik 8ri gustatuko litzaieke mota horretako informazio gehiago jasotzea; beraz, hori faktore garrantzitsu bat da orokorrean emakumezko ikasle guztientzat.

**Importancia para las alumnas del fomento y cuidado de la igualdad de mujeres y hombres en los centros de FP con Ciclos Formativos STEAM.**

Al 82,1% de las alumnas le hubiera gustado recibir más información sobre cómo los centros de FP con Ciclos Formativos STEAM fomentan y cuidan la igualdad de mujeres y hombres. En este caso, aunque el porcentaje es 5,7 puntos porcentuales mayor en las alumnas STEAM, a ocho de cada diez alumnas no STEAM le hubiera gustado recibir más información de este tipo, de modo que este es un factor relevante para todas las alumnas en general.

**Esan daiteke ikastetxetik kanpo egindako jarduerek ikastetxe barruan egindakoek baino inpaktu handiagoa dutela**; beraz, orientazio-estrategiek horiek sustatzeko neurriak aurreikusi beharko lituzkete, horien zati garrantzitsu gisa.

**Se puede decir que las actividades realizadas fuera del centro tienen mayor impacto que las que se organizan dentro de los mismos, de modo** que las estrategias de orientación deberían contemplar medidas para estimularlas como una parte importante de las mismas.

## Influentzia nahikoa edo handia aukeraketan
## Bastante o mucha influencia en la elección

| | STEAM | EZ / NO STEAM |
|---|---|---|
| Nire etorkizunari buruzko familiako elkarrizketetan, nik gradu industrialak ikasi ahal izatea aurreikusten edo onartzen zuten. En las conversaciones con mi familia sobre mi futuro contemplaban o aceptaban que yo pudiera estudiar grados industriales. | 86,1 | 52,5 |
| Nire etorkizun profesional industrial posibleari buruzko elkarrizketak izan nituen lagunekin, kuadrilarekin, eta abarrekin. Tuve conversaciones con mis amistades, cuadrilla, etc. Sobre mi posible futuro profesional industrial. | 59,8 | 45,5 |
| STEAM ikasketei buruzko informazioa bilatu nuen nire kabuz Interneten eta beste toki batzuetan. Busqué información por mi cuenta en internet y otros sitios sobre estudios STEAM. | 62,7 | 42,8 |
| STEAM gaiekiko interesa piztu zidan telesailen bat ikusi nuen edo pertsonaren bat jarraitu nuen sare sozialetan. Vi alguna serie de TV o seguí a alguna persona en redes sociales que hizo que me interesaran temáticas STEAM. | 45,5 | 34,4 |

# 3.5.

## EMAKUMEZKO IKASLE PARTE-HARTZAILEEN AZKEN EKARPENAK
## APORTACIONES FINALES DE LAS ALUMNAS PARTICIPANTES

**SENTSIBILIZAZIOAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK**

/ Ekintza gehiago sustatzea ikasgeletan adin txikitatik; hitzaldiak eta bestelako jarduera didaktikoak. Horrela, ikasketetako eta lanbideetako genero-estereotipoak desagerrarazten laguntzeko.

/ Ikasgeletatik kanpo neurriak sustatzea, kanpainen, sare sozialen eta abarren bidez, gaur egun publizitatearen, telebistaren, sareen eta abarren bidez haurrengana iristen diren eta oso zabalduta dauden estereotipoek gizarteko eremu guztietan duten inpaktua arintzen laguntzeko.

/ Gaur egun egindako sentsibilizazio-ekintzak unibertsitate-ikasketetara bideratuta daudela uste da, eta arreta gehiago jarri beharko litzatekeela Lanbide Heziketan, bai eta ikasleek beren motibazioak eta prestakuntzarekin jarraitzeko dituzten aukera guztiak behar bezala ezagutzean ere.

**PROPUESTAS ASOCIADAS A SENSIBILIZACIÓN**

/ Promover más acciones dentro de las aulas desde edades tempranas, como charlas y otro tipo de actividades didácticas que contribuyan a eliminar los estereotipos de género en los estudios y profesiones.

/ La promoción de medidas fuera de las aulas, mediante campañas, redes sociales etc. que contribuyan a mitigar el impacto que en la actualidad tienen los estereotipos ampliamente implantados en todos los ámbitos de la sociedad que llegan a las niñas y niños a través de la publicidad, televisión, redes, etc.

/ Se considera que las acciones de sensibilización desarrolladas actualmente están muy orientadas a los estudios universitarios y que debería ponerse más el foco en la Formación Profesional, así como en el adecuado conocimiento de las motivaciones propias y de todas las posibilidades que tiene el alumnado para continuar con su formación.

### IKUSARAZTEAREKIN ETA KOMUNIKAZIOAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK

/ STEAM ikasketa eta lanbideetan emakumeen esperientzia erakutsi eta ezagutaraziko duten ekintzen beharra dago.

/ Hitzaldiez gain –horrelako jarduueretarako formula ohikoena dira–, beste batzuk ere proposatu dira, hala nola: world café bat, sare sozialen bidez zabaltzea edo dokumental bat egitea.

/ Emakumezko erreferenteak ikusarazteaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunean hezteko edo kontzientziatzeko balio behar du.

### ZUZENEKO HURBILPENAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK

/ Enpresetara eta Lanbide Heziketako ikastetxeetara bisita gehiago egin behar dira, sektoreak eta lan-errealitatea hobeto ezagutzeko, bai eta emakumeen zein gizonen lehen eskuko testigantzak izateko ere, industria-sektoreetan emakumeen presentzia normalizatzeko, eta emakumezko ikasleak horietara erakartzeko balio dezakete.

### BESTE EKARPEN BATZUK

/ Gizarteari, oro har, edo lantokiei, bereziki, sentsibilizazioa eta komunikazioa zabaltzeko beharra dago.

/ Emakumeen segurtasuna nabarmentzea komeni da.

/ Orientazio hobea behar da orokorrean.

### PROPUESTAS ASOCIADAS A VISIBILIZACIÓN Y COMUNICACIÓN

/ Necesidad de acciones que muestren y den a conocer la experiencia de mujeres en estudios y profesiones STEAM

/ Además de las charlas, fórmula más habitual para este tipo de actividades, se han propuesto otras como: world café, difusión a través de redes sociales o incluso la realización de un documental.

/ Además de visibilizar los referentes femeninos, debe servir para educar o concienciar en igualdad de mujeres y hombres.

### PROPUESTAS ASOCIADAS A ACERCAMIENTOS DIRECTO

/ Necesidad de realizar más visitas a empresas y centros de FP, para conocer mejor los sectores, la realidad laboral, así como para contar con testimonios de primera mano, tanto de mujeres como de hombres, para normalizar la presencia de mujeres en sectores industriales y pueden servir para atraer a las alumnas hacia los mismos.

### OTRAS APORTACIONES

/ Necesidad de abrir la sensibilización y comunicación a la sociedad en general, o a los centros de trabajo en particular.

/ La conveniencia de resaltar la seguridad de las mujeres.

/ La necesidad de una mejor orientación en general.






# **NESKATILAK, NESKA GAZTEAK ETA EMAKUMEAK.** PRESTAKUNTZA CURRICULUMA HAUTATZEKO PROZESUAN JOKA DEZAKETEN PAPERA.

# **LAS NIÑAS, JÓVENES Y MUJERES.** EL PAPEL QUE PUEDEN JUGAR ELLAS MISMAS EN SU PROCESO DE ELECCIÓN CURRICULAR FORMATIVA.

Emakumeek, edozein adinetakoek, kulturalki esleitzen zaizkien genero-estereotipoek baldintzatutako sozializazioa dute, gizonei gertatzen zaien bezala. Txiki-txikitatik, genero-estereotipoek norberaren autokontzeptua eta norberaren autoeraginkortasuna baldintzatzen dituzte, hau da, nork bere buruari buruz duen pertzepzioa baldintzatzen dute, zehazki, erronkak edo helburuak betetzeari dagokionez. Neskak, oso adin goiztiarretik eta estereotipo horiek direla-eta, etorkizunean bere buruaz duten irudiaren eraginpean daude. STEAM adarretako lanbideak oso neurri txikian daude haien imajinarioan, beste ezagutza-arlo batzuekin alderatuta, eta mutilen imajinarioan baino gutxiago. Sexu-genero sistemak eragindako lanbideen segmentazio horrek hainbat arrakala sortzen ditu gizartean.

Prestakuntzarekin jarraitzea erabakitzen duten eta lan-aukera berriak bilatu nahi dituzten neskatila, neska gazte eta emakume heldu gehienentzat, lanbide industrialak, STEAM lanbideak edo lanbide zientifiko-teknikoak arrotzak dira oraindik ere. Norberaren ezagutza eta ahalduntzea berebiziko tresnak dira bokazio-hautuak errazteko adin guztietan. Aurrekoarekin batera, funtsezkoa da sozializazioaren eragile nagusiek erabaki horietan duten eragina ezagutzea: familiak, eskola-inguruneak, parekoen taldeak, sare sozialek, etab.

Sozializazio hori desberdina da sexuaren arabera, eta horren erakusgarri da, gaur egun, Lanbide Heziketan eta unibertsitate-eremuan dagoen sexuaren araberako segregazio handia. Horregatik, hain zuzen ere, curriculumarekin lotutako erabakiak hartzeko prozesuetan, berebizikoa da genero-estereotipoez jabetzea.

Las mujeres, cualquiera que sea su edad, viven una socialización marcada por los estereotipos de género que le son asignados culturalmente, como también ocurre con los hombres. Desde una edad muy temprana, estos estereotipos de género marcan el autoconcepto y la autoeficacia que es la autopercepción que se tiene de una misma, de uno mismo, frente al cumplimiento de retos u objetivos. Las niñas, desde una edad muy temprana y debido a estos estereotipos, se encuentran influidas en la imagen que tienen de ellas mismas en el futuro. Las profesiones de las ramas STEAM están en menor medida en su imaginario que otras ramas del conocimiento, y en menor medida de lo que lo están en los niños. Esta segmentación de las profesiones derivadas del sistema sexo-género generan diferentes brechas en la sociedad.

Niñas y jóvenes, y también mujeres en la edad adulta que deciden continuar formándose y encontrar nuevas oportunidades laborales, en una gran mayoría siguen viendo ajenas las profesiones industriales, STEAM o científico técnicas. El autoconocimiento y el empoderamiento son herramientas imprescindibles para favorecer elecciones vocacionales en todas las edades. Y también lo es conocer qué influencia tienen en las decisiones los principales agentes de la socialización: la familia, el entorno escolar, el grupo de iguales, las redes sociales, etc.

Esta socialización se da de forma diferencial en función del sexo, y muestra de ello es la gran segregación por sexos que se da en la actualidad en la formación profesional y en el ámbito universitario. Es por ello por lo que la toma de consciencia de los estereotipos de género en la toma de decisiones curriculares es tan relevante.

## Zein izan daiteke nesken papera genero-estereotipoek baldintzatuta ez egoteko?

## Zein gomendio izan ditzakete kontuan steam adarrekin lotutako bokazioak ez ukatzeko?

- Hartu jarrera proaktiboa informazioa biltzerakoan eta ez bilatu informazioa soilik zure familia-ingurunean edo lagunen artean ezagunenak edo ohikoenak diren graduei buruz. Aztertu LHk eskaintzen dizkizun aukera ugariak.
- Nabarmendu zure gaitasunak. Nota akademikoak ez dira izan behar zure erreferentzia bakarra; besteak beste, honako alderdiak hartu beharko zenituzke kontuan: eremu berriak arakatzeko grina, egokitzeko duzun gaitasuna, etab.
- Bilatu konfiantzazko sareak eta espazioak hausnarketak partekatzeko (lagunekin edo ikastetxeko ikaskideekin, irakasleekin, familiarekin...); horrela, STEAM ikasketen inguruko kezkak edo zalantzak argitu ahalko dituzu.

## ¿Qué papel pueden jugar ellas mismas para no estar sesgadas por los estereotipos de género?

## ¿Qué recomendaciones pueden tener en cuenta para no rechazar las vocaciones hacia ramas STEAM?

- Adopta una actitud proactiva en cuanto a la búsqueda de información, no te limites a buscar información sobre los grados más conocidos o más habituales en tu entorno familiar o de amistades. Explora el amplio abanico de posibilidades que te ofrece la FP, tanto sus ciclos como sus políticas de igualdad.
- Pon en valor tus capacidades. Las notas académicas no han de ser tus únicas referencias, valora también aspectos como la inquietud por explorar ámbitos nuevos, tu capacidad de adaptación, etc.
- Busca redes y espacios de confianza para compartir reflexiones (con amigas y amigos, o compañeras del centro, docentes, familia…) y poder dar respuesta a tus inquietudes o dudas en relación con estudios STEAM.

- / Proposatu ikastetxeari eta ikastetxeko orientabide-zerbitzuari STEAM adarretara modu praktikoan hurbiltzeko jarduerak: LH zentroetarako edo enpresetarako bisitak, ate irekiko jardunaldiak, STEAM arloko emakumezko erreferenteak ezagutzea, etab.
- / Hartu parte ahalduntzeko edo genero-estereotipoak gainditzeko lantegietan; erabili espazio horiek estereotipoek zure eguneroko bizitzan eta funtsezko alderdien inguruko erabakietan nola eragiten duten ikusteko.
- / Ezeztatu STEAM adarretatik urruntzea xede duten argudioak, baldin eta argudio horiek genero-estereotipoetan oinarrituta badaude edo eremu horietara egokitzeko izango dituzun zailtasunak nabarmentzen badituzte.

- / Propón a tu centro y al servicio de orientación de tu centro actividades que os acerquen a las ramas STEAM de una manera práctica: con visitas a centros FP o a empresas, jornadas de puertas abiertas, conocer referentes de mujeres STEAM, etc.
- / Toma parte en talleres para el empoderamiento o para la superación de estereotipos de género, utiliza estos espacios para conocer el modo en el que te influyen en el día a día y en la toma de decisiones en aspectos vitales.
- / Rebate los argumentos que te quieran alejar de ramas STEAM cuando estos argumentos se centren en estereotipos de género o sobre las dificultades que tendrás para adaptarte a dichos ámbitos.



# 5

## **LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEAK STEAM ADARREKIN.** IZAN DEZAKETEN ERAGINA ETA JOKA DEZAKETEN PAPERA.

## **LOS CENTROS DE FORMACIÓN PROFESIONAL CON RAMAS STEAM.** SU INFLUENCIA Y EL PAPEL QUE PUEDEN JUGAR.

Lanbide Heziketako ikastetxeek zeregin nagusia dute lanbide-adarrak jakinarazi eta lanbide-erreferentziak emateko orduan, ikasketak hautatzean erabakitzen laguntzeko.

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko munduari eta, orokorrean, gizarteari egiten dioten hurbilketan STEAM izenekoen esparruan dauden lanbide-irteerak erakusten dituzte. Kanpo komunikazioak eta antolatzen dituzten orientabide-jardueren diseinuak nahiz garapenak genero-estereotipoak gainditzen laguntzen dute. Estereotipo horiek gainditzeko eragile kritikoaren zereginean, ordea, ikastetxeek ez dute beti generoaren ikuspegia sartzen, eta zaila da prestakuntza-adar horiek neska, gazte eta emakumeekin identifikatzea.

Los centros de Formación Profesional ejercen un papel protagonista en dar a conocer sus ramas profesionales y en ofrecer referentes profesionales que ayuden a la toma de decisiones en la elección de los estudios a realizar.

En ese acercamiento que realizan al mundo educativo de secundaria y bachilleratos, y la sociedad en general, muestran las salidas profesionales existentes en el ámbito de las STEAM. La comunicación externa que realizan así como el diseño y desarrollo de las actividades de orientación que organizan son elementos susceptibles de colaborar con la superación de estereotipos de género. Sin embargo, y en su papel de agente crítico en la superación de estos estereotipos, los centros no siempre incorporan la perspectiva de género dificultándose la identificación de las niñas, jóvenes y mujeres con estas ramas formativas.

## Zer zeregin izan dezakete steam adarrak dituzten LH-ko ikastetxeek genero-estereotipoen arabera banatutako orientabidea ez emateko?

## Zer gomendio kontuan hartu behar dituzte steam bokazioetan modu positiboan eragiteko?

- Zure ikastetxean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak bultzatzea. Barnean eta kanpoan estrategiak eta ekintzak martxan jartzea. Hezkuntza-erkidego gehiena zeharka konpromiso horretan nahastea, pertsona bakarraren ardurapeko lan-ildoa ez dadin izan.
- Zure ikastetxeko STEAM adarrak ikusgai bihurtzeko komunikazio-plana diseinatzea eta komunikazio-planean generoaren ikuspegia sartzea. Plan horren barruan neskak, gazteak eta emakumeak motibatzeko berariazko kanpainak sartzea eta aurreikuspena egitea, jardunaldiak edo bisitak antolatzeko, Lehen Hezkuntzarako, Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako, bai eta gurasoen elkarteetarako ere, material estandarrak prestatzeko, eta abarrerako.

## ¿Qué papel pueden jugar los centros de FP con rama STEAM para una orientación no sesgada por los estereotipos de género?

## ¿Qué recomendaciones pueden tener en cuenta para que influyan positivamente en las vocaciones STEAM?

- Impulsa políticas de igualdad de mujeres y hombres en tu centro. Por en marcha estrategias y acciones tanto internas como externas. Vincula a este compromiso a buena parte de la comunidad educativa, de manera transversal, de tal manera que no sea una línea de trabajo que recaiga en una única persona.
- Diseña un plan de comunicación para visibilizar las ramas STEAM de tu centro, e incorpora la perspectiva de género en dicho plan de comunicación. Haz que contenga campañas específicas de motivación a niñas, jóvenes y mujeres, que prevea la organización de jornadas o visitas, la preparación de materiales estándar para centros educativos de primaria, secundaria y bachilleratos, y sus AMPAS, etc.

- / Sare sozialetan zure eragin geografikoko pertsona gazteentzako kanpainak argitaratzea. Informazioaren banako bilaketak kontuan hartzen den erreferentzia nagusietako bat dira.
- / Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxeetarako jarduerak antolatzea, baina, aldi berean, banako gazteentzat edo lagun-taldearen formatuan lagunartean etortzeko ere bai. Halako taldeentzat berariazko jarduerak diseinatzea.
- / STEAM emakume ikasle ohien zerrenda eguneratua mantentzea, erraz aurkitzeko eta ikastetxeko jardueratan parte hartu ahal izateko. Emakume horiekin konfiantzazko harremanak zehaztea eta baloratuak sentiaraztea, beren erreferentziazko rola ulertarazteaz gain. STEAM emakume ikasle ohien “poltsa” horretako kideekin eman behar diren mezuak lantzea.

- / Publica campañas en redes sociales dirigidas a las personas jóvenes de tu entorno geográfico de influencia. Las búsquedas individuales de información son una de las principales referencias a las que atienden.
- / Organiza actividades dirigidas a centros de secundaria y bachilleratos, pero también dirigidas a jóvenes a nivel individual o para que puedan venir grupos de amigas o amigos en formato cuadrilla. Diseña actividades específicas para este tipo de grupos.
- / Mantén actualizado un listado de antiguas alumnas STEAM que te facilite encontrarlas y que puedan tomar parte en actividades del centro. Establece relaciones de confianza con ellas y haz que se sientan valoradas y que comprendan su rol de referente. Trabaja los mensajes a dar con las componentes de esa “bolsa” de exalumnas STEAM.

- Zure ikastetxean kanpoko zabaltze-jardueretan aritzen diren pertsonek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta genero-estereotipoak gainditzeko prestakuntza jaso dezaten sustatzea.
- Inguruko enpresekin harremana bultzatzea, batez ere, berdintasunaren arloan politika aktiboak badituzte. Orientabide-jardueretarako, sare sozialetan posta argitaratzeko, eta abarrerako erreferentziazkoa izan daitekeen emakume-multzoa identifikatuta eta izatea. Garrantzitsua da lanbide-adar horietako emakume hurbilak ezagutzea, haiekin identifikatu ahal izateko.
- Bokazio horretara bideratzen diren emakume ikasleen ekimenak babestea. Ikusgai egitea; prestakuntzan eta enpresetan egindako praktiketan zaintzea ez uzteko eta kalitatezko giroak sustatzeko.
- Lehen Hezkuntzako mailetatik zure ingurune gertuko gurasoen elkarteetako munduari hurbiltzea. Adin horretako umeak dituzten familientzat hezkuntza- eta dibulgazio-materialak egitea, familietan dauden estereotipoen gainean pentsarazteko.

- Facilita que las personas de tu centro que actúen en actividades de difusión externa hayan recibido formación en materia de igualdad de mujeres y hombres y para la superación de estereotipos de género.
- Fomenta la relación con las empresas de tu entorno, especialmente con aquellas que cuenten con políticas activas en materia de igualdad. Identifícalas, y tened identificado un grupo que puedan ser referentes para actividades de orientación, publicación de post en redes sociales, etc. Es importante que conozcan mujeres en estas ramas profesionales que resulten cercanas y con las que se puedan identificar.
- Apoya las iniciativas de las alumnas que vayan dirigidas a esta vocación. Dales visibilidad, atiende a su bienestar en la formación y en las prácticas en empresa para prevenir posibles abandonos y favorecer climas de calidad.
- Acércate al mundo de las AMPAS/APyMAs de tu entorno más cercano, desde niveles de primaria. Elabora materiales educativos o divulgativos de interés para las familias con criaturas de esas edades, con el fin de remover estereotipos presentes en las familias.



/ STEAM ikasketei balioa emateaz gain, beste kontzeptu batzuk lantzea, hala nola autokontzeptua edo autoeraginkortasuna, oso garrantzitsuak baitira etorkizunean kokatzeko eta pertsonen etorkizunari buruzko aukerak formulatzeko.

/ Herriko edo eskualdeko talde feministei hurbiltzea. Historian zehar, besteak beste, indarkeria matxistari edo zaintzen munduari aurre egiten diete, eta interesgarria izan daiteke ikastetxeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin hartutako konpromisoak eta garatutako jarduerak helaraztea.

/ STEAM adarrak emakume helduei gerturatzeko kanpainak egitea. Langabezian egon daitezke edo enplegua aldatzeko motibazioa izan dezakete; agian, enplegua hobetzeko jarduera-sektorea aldatu nahi dute; lan-merkatuan berriz sartzeko prest daude; emakume migratzaileak izan daitezke eta kalitatezko lan-aukeraren bila dabiltza; etab.

/ Junto a poner en valor los estudios STEAM, pueden trabajarse conceptos como el autoconcepto o la autoeficacia, que son de vital importancia a la hora de visionarse en el futuro y de formular expectativas sobre el futuro de las personas.

/ Acércate a los grupos feministas locales o de tu comarca. Históricamente han trabajado el abordaje de la violencia machista o el mundo de los cuidados, entre otros ámbitos, y puede ser interesante trasladarle los compromisos y actividades del centro con la igualdad de mujeres y hombres. La superación de estereotipos de género también es un objetivo que persiguen.

/ Aborda campañas que acerquen las ramas STEAM a mujeres adultas. Pueden encontrarse en una situación de desempleo, o estar motivadas para cambiar de empleo e incluso de sector de actividad para la mejora de su empleo, ser mujeres denominadas “reentrantes” al mercado laboral, o ser mujeres migradas en búsqueda de una oportunidad laboral de calidad, etc.





# 6

# ORIENTATZAILEAK ETA IRAKASLE-TALDEAK.
## HAIEN ERAGINA ETA JOKA DEZAKETEN PAPERA.

# LAS FIGURAS DE ORIENTACIÓN Y EQUIPOS DOCENTES.
## SU INFLUENCIA Y EL PAPEL QUE PUEDEN JUGAR.

Irakasle-taldeek, oro har, eta orientabide-taldeek, bereziki, ikasleengan eragin sakona izateko eginkizuna dute. Eginkizun horren helburuetako bat izan beharko luke, gaur egun, oraindik ere gure gizartean dauden genero-estereotipoak gainditzeak, ahal den neurrian haurrek, bai neskek, bai mutilek, genero-estereotipo horien arabera hauta ez ditzaten euren bokazioak.

Tutoretzak, orientabide-jarduerak eta ikasleekin garatzen diren ekimen guztiak hezkidetzatik bideratu behar dira, genero-joerak eraisteko eta etorkizuneko prestakuntza- eta lanbide-ibilbideak hautatzen laguntzeko ikasleei.

Dirudienez, irakasle-taldeak eta orientatzaileak ez dira eragilerik garrantzitsuenak neska-mutilen erabakietan. Nolanahi ere, gaur egun, ezin da ulertu haien lana, baldin eta genero-ikuspegia kontuan hartzen ez bada ikasleek autonomiaz har ditzaten beren erabakiak.

Los equipos docentes en general, así como los de orientación en particular, están destinados a producir un gran impacto en su alumnado. Esta función habría de poder incorporar en sus objetivos la superación de los estereotipos de género que aún hoy se dan en nuestra sociedad para evitar en la medida de lo posible que la elección de las vocaciones se realice en función de dichos estereotipos tanto por niños como por niñas.

Las tutorías las actividades de orientación y todas aquellas iniciativas que se desarrollen con el alumnado han de enfocarse desde la coeducación de tal manera que se desmonten los sesgos de género y ayuden en la elección de sus itinerarios formativos y profesionales futuros.

Los equipos docentes y las figuras de orientación no parecen ser los agentes más determinantes en las decisiones de los chicos y las chicas. Hoy, sin embargo, no puede entenderse su labor si ésta no atiende a la perspectiva de género para la autonomía en las decisiones.

## Zein izan daiteke orientatzaile eta irakasleen papera, oro har, genero-estereotipoek baldintzatuko ez duten orientabidea eskaintzeko?

## Zer-nolako gomendioak eman ditzakete steam bokazioetan eragin positiboa izateko?

## ¿Qué papel pueden jugar las figuras de orientación y los equipos docentes en su conjunto para realizar una orientación no sesgada por los estereotipos de género?

## ¿Qué recomendaciones pueden tener en cuenta para que influyan positivamente en las vocaciones STEAM?

/ Aukeratu genero-rolak betikotzen ez dituzten material didaktikoak; bereziki, neskak STEAM ikasketetatik aldentzen ez dituztenak. Bilatu neskei zuzendutako STEAM adarretarako berariazko orientabide-materialak. Bildu otsailaren 11ren —Emakume eta neska zientzialarien nazioarteko egunaren— inguruan sortutako materialak, prentsa-artikuluak, sare sozialetako bideoak, etab.

/ Bilatu informazioa beste eragile batzuek neskengan eta emakume gazteengan STEAM adarrak sustatzeko antolatutako ekimenei buruz eta aztertu nola egoki dezakezun dinamika horietakoren bat zure irakasle-, tutoretza- edo orientabide-lanera.

/ Elige materiales didácticos que no perpetúen los roles de género, especialmente, las que alejan a las niñas de los estudios STEAM. Busca materiales específicos de orientación hacia las STEAM dirigidos a niñas. Recopila materiales, artículos de prensa, vídeos de redes sociales, etc. surgidos en los días en torno al 11 de febrero, Día de la mujer y la niña en la ciencia y la tecnología.

/ Infórmate sobre iniciativas organizadas por otros agentes en materia de fomento de las STEAM en niñas y jóvenes, y plantea cómo adaptar alguna de estas dinámicas a tu labor docente, de tutorización o de orientación.

/ Sustatu pentsamendu sortzailea eta arazoen ebazpena bultzatzen dituzten ariketak edo proiektuak ikasgelan, emakumezko ikasleek esperientzia positiboak bizi ditzaten STEAM edukien inguruan. Sustatu esperientzia positiboak, ikasle horiei beren buruarekiko konfiantza , eraginkortasun pertsonala eta motibazioa bereganatzen laguntzeko.

/ Saiatu ikastetxean Zientziaren Astea eta antzeko edo bestelako ekimenak antolatzeko talde mistoak osatzen, betiere kopuruak hori ahalbidetzen badu. Saiatu jarduerak modu mistoan jorratzen eta ez proiektu-taldeen feminizaziotik edo maskulinizaziotik abiatuta.

/ Erakutsi eskuragarri dauden aukera profesional eta akademiko guztiak. Ez utzi zure ustez interesgarrienak direnek eragin diezazuten. Ezagutzen ez denak ezin du interesik sortu.

/ Heziketa ikastetxeko berdintasun-politikak ere hurbiltzen ditu. Eremu interesgarria da ikasleentzat. Nabarmendu ezazu bereziki, aurkezten ari zaren ikastetxeak STEAM zikloak edo adar maskulinizatuak baditu.

/ Ikusarazi eremu industrial, tekniko, teknologiko edo zientifikoko emakumeak, memoria historikoa berreskuratzeko ariketa gisa, erreferenterik ez dutela sentitzen duten neskentzat. Identifikatu, aurrekoaz gain, STEAM adarrekin lotutako profil profesional desberdinetako emakumeak hurbileko ingurunean, oso urruneko bizitza-historiak dituzten emakumezko erreferenteetara jo gabe.

/ Fomenta ejercicios o proyectos en el aula que fomenten el pensamiento creativo y la resolución de problemas para que las alumnas vivan experiencias positivas de contenidos STEAM. Promueve experiencias positivas para ayudar a desarrollar la confianza en sí mismas, la eficacia personal y la motivación.

/ Procura que iniciativas como *La Semana de la Ciencia* u otras que se organicen en tu centro tengan que desarrollarse con equipos mixtos siempre que, por número, sea posible. Procura que las actividades se aborden de una manera mixta y no desde la feminización o la masculinización de los equipos de proyectos.

/ Muestra todo el abanico de opciones profesionales y académicas posibles. No te dejes influir por las que consideres que son de mayor interés. Lo que no se conoce no puede generar interés.

/ Acerca también las políticas de igualdad de los centros de formación. Es un ámbito de interés para las alumnas. Haz especial hincapié cuando el centro que estés presentando tenga ciclos STEAM o ramas masculinizadas.

/ Visibiliza a las mujeres del ámbito industrial, técnico, tecnológico o científico como ejercicio de recuperación de memoria histórica para las alumnas que se sientan sin referentes. Identifica también en vuestro entorno cercano a mujeres de diferentes perfiles profesionales vinculados con las STEAM, no cayendo en mujeres referentes con historias de vida que les resulten muy alejadas. Han de poder identificarse con ellas.

- Identifikatu itzazu zuen inguruan STEAMekin lotutako profil profesional desberdinetako emakumeak ere, kontutan izan gabe hortik oso urrun duten bizitza-istorioak dituzten emakume erreferenteak. Haiekin identifikatu behar dute.
- Hurbildu inguruko lan-mundua zure ikasleei. Saiatu berdintasuna lantzen duten eta estereotipoak gainditu dituzten inguruetarako bisitak antolatzen.
- Berrikusi zure mapa mentalak eta aztertu nola antolatzen duzun inguruko errealitatea, baita horrek ikasleekiko harremana nola baldintzatzen duen ere. Jaso emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunari buruzko prestakuntza, sakonago aztertzeko estereotipoek nola baldintzatzen gaituzten eta nola gaindi ditzakegun. Jaso genero-ikuspegia zure irakaskuntza- edo orientabide-lanean txertatzeko prestakuntza.
- Kontuan hartu emakumezko ikasle bakoitzaren gaitasunak. Horietako batean bikaina ez izateak ez du esan nahi Lanbide Heziketa zehatz bat egiteko gaitasunik ez duenik.
- Eskatu ikastetxeari sentsibilizazioa eskaintzeko, genero-estereotipoak eta rolak gainditzeko, bai ikasleen artean, bai familietan. Sentsibilizazio hori orientabide-prozesuetan edo tutoretza-prozesuetan presentzia nabarmena duten irakasleei ere eskaini beharko litzaieke.

- Identifica también en vuestro entorno cercano a mujeres de diferentes perfiles profesionales vinculados con las STEAM, no cayendo en mujeres referentes con historias de vida que les resulten muy alejadas. Han de poder identificarse con ellas.
- Acerca el mundo laboral cercano a tu alumnado. Procura realizar visitas a entornos donde trabajen la igualdad y puedan mostrar la superación de estereotipos.
- Revisa tus propios mapas mentales y el modo en el que organizas e interpretas la realidad y cómo ésta determina tu relación con el alumnado. Realiza formación en materia de igualdad de mujeres y hombres para tomar una mayor conciencia sobre el modo en el que los estereotipos nos marcan y cómo superarlos. Realiza formación para incorporar la perspectiva de género en tu labor de docencia o de orientación.
- Ten en cuenta todas las capacidades de cada alumna. No ser brillante en una de ellas no les incapacita para realizar una formación profesional determinada.
- Solicita a tu centro que ofrezca sensibilización para la superación de roles y estereotipos de género en el alumnado y en sus familias. También para el profesorado que pueda tener una presencia destacada en procesos de orientación o tutorización.


JBM
AUTOMOCIÓN



# 7

# FAMILIAK.
HAIEN ERAGINA ETA JOKA DEZAKETEN PAPERA.

# LAS FAMILIAS.
SU INFLUENCIA Y EL PAPEL QUE PUEDEN JUGAR.

Familia-ingurunean edo babes-ingurunean, adingabeek eta nagusiek orientabideak, bizitzan zehar hartzen diren erabakien berrespena, laguntzak eta kontuan hartu beharrekotzat jotzen ditugun hausnarketa-ildoak bilatzen ditugu. Segurtasuna eta babesa eskaintzen dituen espazio bat da eta, bizitzaren lehenbiziko hamarkadetan, oso pisu garrantzitsua dauka.

Bestalde, familiako kideek edo oinarrizko zaintzen inguruneko kideek eragin handia dute genero-estereotipoak eta rolak helarazteari edo eraldatzeari dagokionez. Hori da haurren lehenbiziko sozializazio-espazioa; hortaz, bertan ezartzen dira gizartean bizitzera egokitzeko baliagarriak izango zaizkigun arauak eta balioak.

Oso garrantzitsua da eragin horietaz jabetzea eremu guztietan eta, kasu honetan, zehazki, prestakuntza-ibilbideak eta ibilbide profesionalak hautatzeko prozesuan. Familiaren hezkidetza kontzientea berebiziko urratsa da lan-eremuko emakumezkoen eta gizonezkoen rolen transmisio tradizionala apurtzeko

El entorno familiar o de tutela supone un espacio en el que, menores y mayores, buscamos orientaciones, afirmaciones a las decisiones que se van tomando a lo largo de la vida, apoyos o líneas de reflexión que nos parece necesario tener en cuenta. Es un espacio que ofrece seguridad y soporte, y el peso que tiene en las primeras décadas de la vida es muy relevante.

A su vez, las y los componentes de esa familia o entorno de cuidados básicos, tienen gran influencia en la transmisión o transformación de estereotipos y roles de género. Es un primer espacio de socialización de las niñas y los niños, en el cual se determinan las normas y valores que se pretende que nos sean útiles y adaptativos para la vida en sociedad.

Tomar conciencia de estas influencias en todos los ámbitos y, en este caso, en el proceso de elección de itinerarios formativos y profesionales, es muy relevante. La coeducación consciente en la familia supone un paso indispensable para romper la transmisión tradicional de roles femeninos y masculinos en el ámbito del empleo.

## Zein izan daiteke familien papera genero-estereotipoek baldintzatuko ez duten orientabidea eskaintzeko?

## Zer-nolako gomendioak eman ditzakete steam bokazioetan eragin positiboa izateko?

- / Sortu giro oneko eta konfiantzazko espazioak familia-komunikazioan. Galdetu zein diren haren interes pertsonalak eta profesionalak eta, utz iezaiozu, besteak beste, haren ideiak, zalantzak eta analisiak adierazten. Ez eten haren jarduna eta, hitz egitean, saia zaitez ekarpen positiboak egiten, epaitu gabe.
- / Aintzat hartu haren gaitasun guztiak, alderdi guztiak kontuan hartuta, horiek generoko estereotipo-rolekin bat etorri ala ez. Baliteke haren nortasunaren eta interesen definizioa berarengandik espero duzunarekin bat etortzea, edo ez. Kontuan hartu bere identitatea eraikitzen ari dela eta erabakiak hartzen ausartzen ari dela.

## ¿Qué papel pueden jugar las familias para una orientación no sesgada por los estereotipos de género?

## ¿Qué recomendaciones pueden tener en cuenta para que influyan positivamente en las vocaciones STEAM?

- / Genera espacios de buen ambiente y de confianza en la comunicación familiar. Pregunta por sus intereses personales y profesionales, y déjales que expresen sus ideas, sus dudas, sus análisis, etc. No le interrumpas, y en tus intervenciones procura realizar aportaciones en positivo y no en clave de juicio.
- / Valora todas sus capacidades, teniendo en cuenta todas las dimensiones ya sean consecuentes con los roles estereotípicos de género o no. La definición de su personalidad y de sus intereses puede corresponderse, o no, con lo que esperas de ella. Valora la identidad que está construyendo y las decisiones que se está atreviendo a tomar.

- Sustatu gaiaren inguruko elkarrizketak, baina ikasketa-mota jakin baterako joera erakutsi gabe, batez ere joera hori adar profesional desberdinei buruz dituzun sinesmenetan oinarritzen bada. Aztertu zergatik nahiago duzun zure alaba lanbide batzuetara edo beste batzuetara orientatzea eta posizio hori indartzen duen daturik duzun edo, aitzitik, sinesmen hutsak diren.
- Lagundu erabakietan, eta ez izan beldur prestakuntza- edo lan-ingurune horretan emakume gutxi badago.
- Proposatu STEAM graduak dituzten LHko ikastetxeen ate irekiko bisitetara joatea edo ikastetxe horien inguruko informazio gehiago bilatzea, aukera desberdinen inguruko informazio gehiago edukitzeko. Lagungarria da jardunaldi horietara joatea edo prestakuntza ingurune horretan jaso duten pertsonak ezagutzea. Ingurune ezezagun horretan deseroso egongo dela ikustekotan, joan zaitez berarekin.

- Fomenta conversaciones sin que se perciba tu predisposición a un tipo de estudio, sobre todo si ésta se basa en tus creencias sobre las diferentes ramas profesionales. Cuestiona cuáles son las razones que te llevan a preferir orientar a tu hija hacia unas profesiones o hacia otras, y si tienes datos -o meras creencias- que refuerzan tu posición.
- Acompaña en las decisiones, que no te asuste la idea de que vaya a formar parte de un entorno formativo o laboral en el que vaya a haber pocas mujeres.
- Proponle que acuda a las visitas de puertas abiertas a centros de FP con grados STEAM, o que busque información de ellos para tener un mayor abanico de información sobre diferentes oportunidades. Facilita que vaya a estas jornadas o que conozca a personas que se hayan formado en ese entorno. Acompáñale, si ves que va a sentirse ajena en un ambiente desconocido.


BARAUTSAK
BARAUTSAK
OTXABUAK
HARIZTAKETA
PUNTO
Irte

/ Bilatu informazioa lan-aukerei buruz, STEAM lan-eremuetako neska eta emakumeei buruz eta berdintasun-politikak dituzten edo STEAM eremua genero-ikuspegiarekin lantzen ari diren LHko ikastetxeei buruz.

/ Proposatu, besteak beste, zientzien, teknologiaren, programazioaren edo robotikaren inguruko udalekuetan edo eskolaz kanpoko jardueretan ematea izena. Zure familia-ingurunean edo lagunen artean, baliteke beste seme-alaba batzuek ere interesa izatea.

/ Erakutsi askotariko eremu profesionaletako emakumezko erreferenteak txiki-txikitatik: filmen edukiagatik, erabiltzen diren jokoengatik, etab.

/ Parte hartu hezkuntza-ikastetxean, gurasoen elkartean, udalerrian edo bestelako espazioetan antolatzen diren eta neskatilen STEAM eremuko bokazioak sustatzera edo genero-estereotipoetatik harago doazen bokazio profesionalak sustatzera zuzenduta dauden jardueretan.

/ Ausartu zaitez zure mapa mentalak eta zure inguruko errealitatea antolatzeko eta interpretatzeko modua, eta horrek zure alabekiko harremana nola baldintzatzen duen ikustera. Parte hartu emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-jardueretan, estereotipoek markatzen gaituzten moduaz eta horiek gainditzeko moduaz gehiago jabetzeko. Gure estereotipoez edo aurreiritziez ohartzeak gure alabei laguntzen lagunduko digu.

/ Busca información sobre oportunidades de empleo, sobre chicas y mujeres en ámbitos laborales STEAM, sobre centros de FP con políticas de igualdad o que estén trabajando lo STEAM con perspectiva de género.

/ Proponle la inscripción en colonias de verano, extraescolares, etc. sobre ciencias, tecnología, programación, robótica, etc. En tu entorno familiar o de amistades igual hay también otros hijos o hijas que puedan tener interés.

/ Acércales referentes de mujeres diversas en lo profesional desde las edades más tempranas: por el contenido de las películas, los juegos que se empleen, etc.

/ Acude a las actividades que organicen en el centro educativo, en el AMPA/APyMA, en tu municipio o en otros espacios, y que vayan dirigidos al fomento de vocaciones profesionales de las niñas en el ámbito STEAM o al fomento de vocaciones profesionales más allá de los estereotipos de género.

/ Atrévete a descubrir tus propios mapas mentales y el modo en el que organizas e interpretas la realidad que te rodea y cómo ésta determina tu relación con tus hijas. Toma parte en actividades de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres para tomar una mayor conciencia sobre el modo en el que los estereotipos nos marcan y cómo superarlos. Tomar conciencia de nuestros posibles estereotipos o prejuicios nos ayudará en nuestro acompañamiento a nuestras hijas.



# 8

## STEAM SEKTOREETAKO ENPRESAK.
HAIEN ERAGINA ETA JOKA DEZAKETEN PAPERA.

## LAS EMPRESAS DE SECTORES STEAM.
SU INFLUENCIA Y EL PAPEL QUE PUEDEN JUGAR.

Enpresek funtsezko eginkizuna dute gizartean, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunak aurrera egiteko, eta enpresen berdintasunarekiko konpromisoa kanpo-harremanetan zein barne-harremanetan hauteman behar da: garapen profesionalerako aukera berberak; ordainsari berbera; parte-hartze maila berbera erabakiak hartzeko prozesuetan; erantzunkidetasunaren sustapena; sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziorako protokoloak, etab.

Aztertzen ari garen kasuan, enpresek erantzukizun zuzena dute pertsonek haien inguruan duten irudiari dagokionez. Enpresa askok erabat maskulinizatutako edo feminizatutako errealitateak islatzen dituzte kanpoaldera, horrek gure gizarteko haurren, nerabeen eta gazteen artean duen efektua kontuan hartu gabe.

Hortaz, funtsezkoa da enpresek beren lan-ingurunea eta gizarte-proiekzioa zaintzea. Emakumeak errespetatzen dituzten eta horien aurkakoak ez diren lan-inguruneak sortu eta komunikatu behar dituzte eta, komunikazio-politikaren bidez, lagundu egin behar dute genero-estereotipoek baldintzatzen ez dituzten errealitate profesionalak ikusarazten. Hezkuntza-inguruneko zein ingurune profesionaleko eragileekin (eskola, ikastola, institutu, LHko ikastetxe, udal eta abarrekin) dituzten harremanek aukera eman behar dute emakumeak industriako arlo profesionaletan edo STEAM arloetan ikusteko, baita, besteak beste, ate irekiko jardunaldiak, bisitak, emakumezko langileekin antolatutako topaketak eta antzeko jarduerak antolatzeko ere.

Las empresas tienen un papel fundamental en la sociedad para el avance de la igualdad de mujeres y hombres y su compromiso con la igualdad se tiene que percibir tanto en las relaciones externas como en las internas: mismas oportunidades para el desarrollo profesional, igual remuneración, participación por igual en la toma de decisiones, con el fomento de la corresponsabilidad, protocolos para la prevención del acoso sexual y por razón de sexo, etc.

En el caso que nos ocupa, tienen una responsabilidad directa en la imagen que las personas tenemos de ellas mismas. Muchas empresas trasladan al exterior realidades totalmente masculinizadas o feminizadas sin tener en cuenta el efecto que eso produce en la infancia y en la adolescencia y en la juventud de nuestra sociedad.

Por ello, es fundamental que las empresas cuiden su entorno laboral y la proyección social que tienen. Han de generar, y comunicar, entornos laborales respetuosos, no hostiles, hacia las mujeres y ayudar a visibilizar, a través de su política de comunicación, realidades profesionales no estereotipadas en función del género. Su relación con agentes del entorno educativo y profesional -eskolas, ikastolas, institutos, centros de FP, ayuntamientos, etc.- ha de potenciar la visibilización de mujeres en áreas profesionales industriales o STEAM y la colaboración con actividades como jornadas de puertas abiertas, visitas, encuentros con mujeres de la plantilla, etc.

## Zein izan daiteke enpresen papera genero-estereotipoek baldintzatuko ez duten orientabidea eskaintzeko?

## Zer-nolako gomendioak eman ditzakete steam bokazioetan eragin positiboa izateko?

## ¿Qué papel pueden jugar las empresas para una orientación no sesgada por los estereotipos de género?

## ¿Qué recomendaciones pueden tener en cuenta para que influyan positivamente en las vocaciones STEAM?

/ Ezarri lankidetzak inguruko LHko ikastetxeekin, ikasleek lan-errealitatea ezagutzeko. Jakinarazi emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarekin konprometituta zaudela eta prest zaudela ate irekiko jardunaldietan eta lanpostu maskulinizatuetan lan egiten duten emakumeak ezagutzeko berariazko bisitetan parte hartzeko. Esaterako, horretarako, zure emakumezko langileei proposa diezaiekezu jardunaldietan edo esperientzia-mahaietan eta sentsibilizazio-kanpainetan parte hartzea, besteak beste.

/ Bilatu zure langileen artean emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarekin konprometitutako gizonak, haiek ere izan daitezen maskulinizatuta dauden baina berdintasuna errespetatzen duten lan-inguruneetako erreferenteak. LHko ikastetxeetarako edo zure enpresarako bisitak egitera bultzatu ditzakete.

/ Establece colaboraciones con los centros de FP de tu entorno para que su alumnado conozca la realidad laboral. Trasládales tu compromiso con la igualdad de mujeres y hombres y tu predisposición a participar en jornadas de puertas abiertas, en visitas específicas para conocer a mujeres que trabajan en puestos masculinizados, aportando mujeres de tu plantilla para que tomen parte en jornadas o mesas de experiencias o charlas, campañas de sensibilización, etc.

/ Busca en tu plantilla hombres comprometidos con la igualdad de mujeres y hombres, para que también ellos sean referentes de entornos laborales masculinizados pero respetuosos con la igualdad. Pueden apoyar visitas a los centros de FP o las visitas a tu propia empresa.

/ Txertatu benetako berdintasun-politika enpresaren kudeaketan, estereotipoak gainditu nahi dituena eta langileen artean emakumeak gehitzeko ekintza positiboa bultzatzera ausartzen dena, zehazki, emakumeen ordezkaritza murriztua den postuetarako.

/ Lan-eskaintzetan edo sare sozialetan partekatzen dituzun argitalpenetan, erabili hizkera inklusiboa eta behar bezala izendatu lanpostuak. Irudiak erabiltzekotan, saiatu horiek lagungarriak izan daitezen lan-munduko genero-estereotipoak gainditzeko.

/ Garatu, besteak beste, lan-giroak, laneko segurtasuna eta osasuna eta ordainsari eta aintzatespen duinen sistema zaintzen dituen erakunde-kultura. Ziurtatu kultura horrek ez dituela emakumeak diskriminatzen, ez zuzenean, ez zeharka. Halaber, azaldu bisitan etortzen diren ikasleei edo zurekin elkarrizketak dituztenei berdintasuna bermatzeko abian jarri dituzun neurriak (pertsonak kudeatzeko politika ez-diskriminatzaileak, komun eta aldagela independenteak, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko protokoloa eta bestelako neurriak...).

/ Ausartu zaitez ekintza positiboa hartzera, zure enpresako gizonezko eremuetan emakumeak kontratatzeko. Eta azaldu zure enpresan, eta enpresatik kanpo, ekintza positiboen zentzua eta erabilgarritasuna: aldi baterako eta beharrezko neurriak dira, beren kabuz garatzen ez duten edo oso mantso egiten duten desberdintasun sozial edo estrukturalen aurrean. Eta ekintza positiboen aurka borrokatu: kontua ez da gizonak baino balio txikiagoa duten emakumeak kontratatzea. Lanpostuaren baldintzak betetzen dituzten emakumeak kontratatzea da asmoa.

/ Incorpora en la gestión de tu empresa una política de igualdad real, que busque superar estereotipos y que se atreva a adoptar la acción positiva para incorporar mujeres en tu plantilla para puestos donde se da infrarrepresentación de mujeres.

/ En tus ofertas de empleo o en las publicaciones que hagas en tus redes sociales, utiliza un lenguaje inclusivo y denomina los puestos de trabajo de un modo adecuado. Si utilizas imágenes, procura que sean una aportación a la superación de estereotipos de género en el mundo del empleo.

/ Desarrolla una cultura organizativa que cuide los ambientes de trabajo, la seguridad y la salud laboral y un sistema de retribuciones y reconocimientos digno, entre otros aspectos. Asegúrate de que no es una cultura que discrimine a las mujeres ni directa ni indirectamente, y explica al alumnado que te visite o con el que compartas conversación las medidas que has puesto en marcha para garantizar la igualdad (políticas de gestión de personas no discriminatorias, baños y vestuarios independientes, protocolo y otras medidas para la prevención del acoso sexual y el acoso por razón de sexo…).

/ Atrévete a adoptar la acción positiva para favorecer la contratación de mujeres en las áreas masculinizadas de tu empresa. Y explica en tu empresa, y fuera de ella, el sentido y la utilidad de las acciones positivas: son medidas temporales y necesarias ante situaciones de desigualdad social o estructural que por ellas solas no evolucionan o lo hacen de una manera muy lenta. Y desarma bulos en contra de las acciones positivas: no se trata de contratar a mujeres menos válidas que los hombres. Se trata de contratar mujeres que cumplen con los requisitos del puesto.



# 9

# ETA ORAIN, **ZER**?
# ¿Y AHORA **QUÉ**...?

**«Somos Las FP, Futuras Profesionales»** proiektuaren taldekideok eskerrak eman nahi dizkizuegu ekimen honetara hurbildu zareten guztiei, zuen interesagatik eta arduragatik. Gaur egun, badakigu guztion helburua dela STEAM adarrak gure ikasleengana genero-ikuspegiarekin hurbiltzea, nork bere ikuspuntua duela: militantzia eta proaktibitatea, konpromiso praktikoa, antzemandako premia bat, edota kontrako ikuspuntua, hau da, genero-ikuspegia LHrako bokazioen eremura eramateko beharra zalantzan jartzen duen eszeptizismoa.

Ikastetxe eta profesional bakoitzaren errealitateak zehaztuko du zein izango den bakoitzak garatuko duen bidea. Hala eta guztiz ere, gure ustez, beharrezkoa da motibazio eta helburu berdinak dituzten ikastetxeen arteko koordinazioa. Garatzen dituzuen ekimen, ikuspegi eta jarduketak integratu beharra dago; izan ere, proiektua partekatua dela jakinda soilik bete ahal izango da helburua: gure inguruneko gazteen bokazioak baldintzatzen dituzten genero-estereotipoak gainditzea.

Desde el equipo del proyecto **“Somos las FP. Las Futuras Profesionales”** queremos agradecer a todas las personas que os habéis acercado a esta iniciativa vuestro interés y vuestra dedicación. Hoy somos conscientes que acercar las ramas STEAM con perspectiva de género a nuestro alumnado es un objetivo vivido por cada persona desde posibles diferentes posiciones: desde la militancia y la proactividad, desde el compromiso práctico, desde una necesidad percibida o, incluso, desde el punto contrario, es decir, desde el escepticismo que cuestiona la necesidad de adoptar el enfoque de género al ámbito de las vocaciones hacia la FP.

La realidad de cada centro y de cada profesional determinará el camino que cada cual vaya a poder desarrollar. Sin embargo, creemos que es necesaria la coordinación de aquellos centros que coincidan en motivación y en objetivos. Es necesaria la integración de las distintas iniciativas que llevéis a cabo, de los enfoques y actuaciones que se desarrollen, porque solamente percibiendo que este proyecto es compartido se conseguirá realmente el objetivo: la superación de los estereotipos de género que determinan las vocaciones en la juventud de nuestro entorno.

Proiektu hau Gipuzkoako eta Nafarroako Lanbide Heziketa publikora bideratu den arren, badakigu egin beharreko bidea ezin dela mugatu Lanbide Heziketaren eremura. Aitzitik, batxilergoetara eta derrigorrezko bigarren hezkuntzara ere heldu behar da, baita harago ere: erronka da lehen hezkuntzaraino heltzea, bertan hasten baitira neskak eta mutilak nahi duten etorkizuna irudikatzen lagunduko dieten ereduak irmoki bereganatzen.

Gure proiektua, «Somos las FP. Las Futuras Profesionales», eta dagozkion **www.somoslasfp.eus** webgunea eta sare sozialak eskaintzen ditugu, esperientzia, testigantza eta ekimenen gordailua izaten jarrai dezaten. Eta ez dugu alde batera uzten gure nahia: proiektu honekin hasitako bideak bizitza luzea izan dezan eta lagungarri izan dadin Lanbide Heziketarako ikastetxe askok espero duten politika komun horretarako.

Espero dugu partekatutako bidea erakundeen, hezkuntzako profesionalen, enpresen, eragile ekonomikoen eta familien inspirazio-iturri izatea. Eta proposamenak gure neska eta emakume gazteengana iristea.

**Zuek zarete etorkizuneko emakumezko profesionalak.**

Este proyecto se ha centrado en la Formación Profesional pública de Gipuzkoa y Navarra, si bien somos conscientes que el camino a recorrer no puede centrarse únicamente en el ámbito de la Formación Profesional. Es necesario llegar a los bachilleratos, y a la educación Secundaria, y más allá: el reto está en que podamos llegar incluso a la educación Primaria donde las niñas y los niños empiezan a adquirir de una manera sólida los modelos que les ayudan a imaginar su futuro deseado.

Ofrecemos nuestro proyecto “Somos las FP. Las Futuras Profesionales” con su página web **www.somoslasfp.eus** y sus redes sociales para que sigan siendo un repositorio de experiencias, testimonios e iniciativas. Y no abandonamos el deseo de que el camino iniciado con este proyecto tenga una mayor vida y ayude a esa política común que están esperando muchos centros de Formación Profesional.

Esperamos que el camino que hemos compartido haya servido de inspiración a entidades, profesionales de la educación, empresas, agentes económicos y familias. Y que las propuestas lleguen a nuestras niñas y a nuestras jóvenes.

**Vosotras sois las Futuras Profesionales.**


MIGUEL
ALTUNA
Lanbide
Heziketa

# SomosLasFP

*Futuras Profesionales*
*Etorkizuneko profesionalak gaitun*

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa
Virgen del Camino
Meka Lanbide Eskola
ikasLAN Gipuzkoa
GIPUZKOAKO LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA
FORMACIÓN PROFESIONAL PÚBLICA DE GIPUZKOA
ncuentra Silvia Muriel Gómez
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
Financiado por el Ministerio de Educación y Formación Profesional – U.E. – Next Generation
Unión Europea